

PRENTSA-TXOSTENA



ITZULIZ USU MUNDUA

TODO MUNDO

ES TRADUCCIÓN

LOST AND FOUND

IN TRANSLATION

gutunzuria bilbao

**LETREN NAZIOARTEKO
JAIALDIA**


2022ko martxoaren 28, 29,
30 eta 31, apirilaren 1 eta 2a

**FESTIVAL INTERNACIONAL
DE LAS LETRAS**


28, 29, 30 y 31 de marzo,
1 y 2 de abril de 2022

**INTERNATIONAL
LITERATURE FESTIVAL**

28, 29, 30 and 31 March
1 and 2 April, 2022

 AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Laguntzaileak / Colaboran / Collaborators

 bbk

 etxe
pare

 bilbao



AURKIBIDEA

- AURKEZPENA
- ELKARRIZKETAK AUDITORIOAN
- GUTUN ZURIA ONLINE
- AZ ESPAZIOA. JAIALDIKO PLAZA PUBLIKOA
- ARGITALPENAK
- JARDUERAK
- POEMÁTICA
- AFRIKA BIBANG
- ALICIA MARTÍN “TRANSFERENCIA”
- “POZ POP”. LIBURUTEGI MUGIKORRA
- EGILEAK
- SARREREN SALMENTA
- GZ-KO KOMUNIKAZIO KANALAK
- KOLABORAZIOAK



AURKEZPENA

Itzuliz usu mundua / Todo mundo es traducción / Lost and Found in Translation

Munduan egoteko eta mundua aldatzeko modu bat



Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdia 2022ko martxoaren 28, 29, 30 eta 31 eta apirilaren 1 eta 2an izango da, *Itzuliz usu mundua / Todo mundo es traducción / Lost and Found in Translation* izenburupean. Anjel Lertxundi idazlearen “Itzuliz usu begiak” saiakeran inspiratuta, Gutun Zuria Bilbaok etengabe itzultzen ari den munduari begiraten dio aurren: esperientziei, kulturei, lurralde artistikoei, generoei, hizkuntza eta lengoaiari, identitatei, gorputzei. Itzulpena, beraz, ez bakarrik fenomeno literario gisa, baizik eta mundua egoteko modu gisa. Gutun Zuria Bilbao, bere irudi grafikoak erakusten duen bezala, mihi zuri bat da – esperimentatzeko, entseatzeko eta jolasteko zirriborro bat – eta mugitzen ari den mihi bat, etengabe eraldatzen ari dena. Harresiak eraisteko eta pentsamenduak, gogoetak eta ezagutzak jariatzeko lekua ere bada, Alicia Martín artistak “Transferencia” ikusizko piezan islatzen duen bezala. Azkuna Zentroak ekoiztako pieza da hau, eta Jaialdiaren zehar Zentroko eta hiriko hainbat gunetan sakabanatuta egongo da ikusgai.

Gutun Zuria Bilbao eztabaida eta gogoetara zabalduko da kulturaren eta sentsibilitateen arteko loturei buruz; dekolonialismoari buruz; ama hizkuntzen zereginari buruz; itzulpena eta idazketaren arteko harremanari buruz; literatur generoen mugei buruz; edo Atlantikoaren ertzetako zubiei buruz.

Kirmen Uribe, Miren Agur Meabe, Cristina Morales, Santiago Auserón, Theodor Kallifatides eta Jhumpa Lahiri autoreak, besteak beste, hitzetatik, spoken word-etik, filosofiatik, kazetaritazatik, ikerkuntzareik, arte bisualetatik edo zuzeneko arteetatik ibiliko dira.

Programazio hau goizero hasiko da gazteen eta forma narratibo berrien, literaturaren edo komikiaren arteko topaketekin, eta LiburudendAZ Jaialdiko denda ofizialaren jarduerarekin lotutako liburuen aurkezpenarekin. Arratsaldeetan, egunero elkarrizketa saio bikoitza egongo da Auditorioan; eta gauetan, hitz mintzatua, hitz ozena, hitz fisikoa, hitz idatzia eta hitz eszenikoa forma tradizionaletik urrun dauden poesia errezitaletan osatzen dira.

Gutun Zuria Bilbao 2022 presentziala eta birtuala da, zuzenean eta grabatuan ekoizten da, eztabaida ireki, testigantza utzi eta aurrez grabatutako kapsuletan hausnarketak



proposatzen dituzten egileen bitartez. Baita Gutun Zuria Irratiaren podcastean, zeinak arratsaldeetan Atrioko “on air” pilotu gorria pizten duena.

Jaialdia Zentroan eta hirian egingo da, eta Atrioan plaza publiko bat irekiko du literatura, arte biziak, musika, irratia eta poesiarako. Az Espazioa plaza publikoa izango da, non pertsonak, erakundeak eta kolektiboak hizkuntza-aniztasuna, euskara, itzulpena eta argitalpena ikertzeko proiektuak, literatur ekimenak edo argitalpen-ekoizpenak aurkeztu eta partekatuko dituzte.

Azken batean, Gutun Zuria Bilbao. Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdiak edizio honetan, kulturaren eta gizartean jarduteko modu gisa begiratzen dio itzulpenari, munduan egoteko modu gisa....mundua aldetzeko modua.

ELKARRIZKETAK

Martxoak 28 • 19:00etan / Martxoak 29, 30, 31 eta apirila 1, 2 • 17:30ean eta 19:00etan

ASTELEHENA, MARTXOAK 28

19:00etan. “Escribir el sonido”

Santiago Auserón Iñaki Esteban-ekin

Santiago Auserón Radio Futura taldeko abeslaria izan da, Madrilgo *movida* deiturikoan kokatua eta gerora rock latinoaren deitu zenaren ernamun bihurtzeko eboluzionatuko zuena. Bere proiektu musikala ere gidatu du, Juan Perro, eta honekin eklektizismoa praktikatu du, besteak beste, soinu kubatarra, musika afrikarra, jazz eta blues-a uztartuz. Musika, literatura eta filosofia konbinatu ditu beti. Bere abestien letrak kontakizun laburrak badira, bere liburuetako testuak ibilbide luzeko saiakerak dira, edo bere ikerketen kronikak “bagamundoak”. Bere azkenaldiko liburu handinahia, “Arte sonora” (Anagrama, 2022), korrante musikal, filosofiko eta literario horietan murgiltzen da gatazkaren eta harmoniaren arteko bidaia batean, antzinatearen jatorrizko kaosaren eta iparrorraztik gabeko orainaldi honen kaosaren artekoa.

Auserón-ek beste filosofo batekin hitz egingo du, Iñaki Esteban. Bilboko *El Correo*ko kazetaria, *Divergencias* bloga eta “Libertad y sentido de las sociedades democráticas” (Miguel de Unamuno Saria 2003) obraren egilea da; eta 2002 urteko artikulugile onenari Atlántida Saria jaso zuen.



ASTEARTEA, MARTXOAK 29

17:30 etan. “Padre, Patria, Patriarcado”

Cristina Morales, Uxue Alberdi eta Elaine Vilar Madruga, María Mur-ekin

Fábrica de Creación La Calderan (Bartzelona) artista egoiliarra da Cristina Morales, eta besteak beste, 2019ko Narratiba Sari Nazionala jaso zuen “Lectura fácil” (Anagrama, 2018) lanagatik eta 2012ko Narratiba INJUVE Saria “Los combatientes” (Caballo de Troya, 2013; Anagrama, 2020) liburuagatik. Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria kontakizun, saiakera eta eleberrien idazlea da; Alfonsina Storni itzuli du eta 111 Akademia eta Euskadi Literatura Saria birritan irabazi ditu. Elaine Vilar Madruga antzerkigilea gaur egungo Kubako literaturako ahots gazte garrantzitsuenetakotzat jotzen da; mundu osoko antologiatan argitaratu du, eta sari ugari lortu ditu, bai nazio mailan, bai nazioartean. Bere azken eleberria, “La tiranía de las moscas” (Barrett, 2021), 2021 urteko Liburu Onenaren Cálamo Saria jaso du. Moralesek, Alberdik eta Vilar Madrugak Consonni argitaletxea eta kulturagune independentearen zuzendari den María Mur Deaneekin batera, *Historia maiuskularen* hondamen gehienak azaltzen dituzten hiru kontzeptu horiek jorratuko dituzte, hiru emakume hauek, beren narratiba arruntekin, argitu eta desaktibatzea lortzen duten indarkeria dakartenak.

19:00 etan “Colonialismos mutantes”

Gabriela Wiener eta Bibiana Candia, Iván de la Nuez-ekin

Gabriela Wiener idazle eta kazetari kubatarra bere herrialdeko Kazetaritzako Sari Nazionala jaso du, eta estatuko eta nazioarteko antologietan parte hartu du. Besteak beste, honako lan hauek argitaratu ditu: “Nueve Lunas” (Random House, 2009), “Llamada perdida” (Malpaso Ediciones, 2014). Bibiana Candia idazle eta kazetari galziarra hainbat poema-liburu argitaratu ditu, eta bere lehen eleberria “Azúcar” (Pepitas de Calabaza, 2021) iazko narrazio-estreinaldi onenetako bat izan da. Nobela kolonialetan erabateko bira adierazten duten bi ahots dira. Mendeetan zehar espoliazio hori kontatu eta kontatzen duenaren lekua, protagonismoa eta generoa dinamizatzen duten bi trama. Iván de la Nuez saiakeragile, kritikari eta komisario kubatarra izango dute lagun.

ASTEAZKENA, MARTXOAK 30

17:30 etan. “Fantasmas en el libro: Pensar la traducción”

Marian Ochoa de Eribe, Javier Calvo eta Koro Navarro, Beñat Sarasola-ekin

Javier Calvo, Koro Navarro eta Marian Ochoa de Eribe saiatuko dira itzultzaile batek ikusezin egon behar ote duen galderari erantzuten. Calvok eta Navarrok ingelesetik itzultzen dute nagusiki, lehen gaztelaniara eta bigarrena euskarara; Ochoa de Eribek, berriz, errumanieratik gaztelaniara. Calvok Liburutegi Laburraren Saioa jaso du eta David Foster Wallace, Don DeLillo eta Salamn Rushdie itzuli ditu, besteak beste. Navarro Euskaltzaindiako kidea da eta Literatura Itzulpenaren Euskadi Saria, Zaitegi Saria eta Vitoria-Gasteiz Itzulpen Saria irabazi ditu. Ochoa de Eribek, bere aldetik, Mircea Cărtărescu moduko hainbat idazle itzuli ditu, eta Errumaniako Kultur Erakundeak literatur sorkuntzarako beja bat eman dio. Topaketa hoentan, lan baten jatorrizko esanahiari eusteko jatorrizkoa traizionatu gabe aukerari buruz hausnartuko dute; eta itzulpenak kultura, forma eta literatura ezberdinen arteko zubi izateko duen gaitasunari buruz. Beñat Sarasola idazle, ikertzaile, irakasle eta editoreak gidatuko du solasaldia.

19:00 etan “El viaje circular: regreso a la lengua materna”

Theodor Kallifatides, Bashkim Shehu eta Jhumpa Lahiri, Iñaki Esteban-ekin

Theodor Kallifatides fikziozko, saiakerako eta poesiako idazle greziarrak 40 liburu baino gehiago idatzi ditu; Ingmar Bergman eta August Strindberg, Giannis Ritsos edo Mikis Theodorakis itzuli ditu; eta beste sari batzuk era jaso ditu, hala nola Greziako Literatura Testimonialeko Sari Nazionala “Lo pasado no es un sueño” (Galaxia Gutenberg, 2013) lanagarik. Ipuninen, eleberrien eta saiakeren idazlea den Jhumpa Lahiri indobritainiar-estatubatuarrek Pulitzer Saria irabazi zuen 2000. urtean, “Interpreter of Maladies” (Houghton Mifflin, 1999) bere lehen liburuari esker. Theodor Kallifatides eta Jhumpa Lahirik jatorrizko hizkuntzak eta konkistatutako hizkuntzak abiapuntuaren eta helmugaren arteko talkak mahai gainean jartzen dituzten idazkera partekatzen dute. Iñaki Esteban filosofo, kazetari eta idazlea dute lagun solasaldi honetan.

OSTEGUNA, MARTXOAK 31

17:30 etan “Hablarle al mundo de tú a tú”

Elvira Dyangani Ose eta Tania Adam Safura, June Fernández-ekin

Elvira Dyangani Ose Nazioarteko Arteko Komisarioa izan da Tate Modern-en eta gaur egun Bartzelonako Arte Garaikideko Museoa (MACBA) zuzentzen du. Tania Adam Safura kazetari eta kultur kritikari mozambiketarra Ràdio Àfrica Magazine-ren sortzailea da eta Afrikako migrazioeti, diaspora beltzei eta Afrikako herri-musikei buruzko bere ikerketa La Virreina edo Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroa (CCCB) bezalako zentroetan

komisariatutako erakusketetan islatu du. June Fernández kazetari eta Pikara Magazine aldizkariaren sortzailearekin batera, desberdintasun kritikara hurbilduko dira, haren jatorria inolado eragozpenik gabe eta sublimaziorik gabe onartzen duten proiektuetatik abiatuta. Denbora errealeko itzulpenak, mundua aldatzeak beti mundua aldatzea dakarrela uste dutenak.



19:00 etan "Escritura y traducción: frunces, puntadas, pliegues"

"Idazkuntza eta itzulpena: izurrak, puntadak, tolesak"

Miren Agur Meabe eta Eduardo Moga

Topaketa honetan, Miren Agur Meabek, Poesiako Sari Nazionala "Nola gorde errautsa kolkoan" (Susa, 2020), baita Kritikaren Saria eta Itzulpengintzako Euskadi Saria ere, eta Eduardo Mogak, Extremadurako Eskualdeko Argitaletxearen zuzendaria eta Irakurketa Sustatzeko Planaren koordinatzailea, itzulpenaren eta idazketaren arteko bidegurutzeari buruz hitz egingo dute. Forough Farrokhzad edo Skolastique Mukasongaren itzultzailea lehena, eta William Faulkner edo Walt Whitmanen itzultzailea bigarrena, bi lan literarioei buruz arituko dira, sormenezkoari eta itzultzaileari buruz, batez ere poesiaren generoari buruz, biak ere poetak baitira. Zenbat ehun du sorkuntzak? Zenbat sormen du itzulpenak?

OSTIRALA, APIRILAK 1

17:30 etan "Paisajes inmensos, viajes internos"

Carlota Gurt, Alejandro Simón Partal, Vicente Monroy

Arte eszenikoei lotutako etapa baten ondoren, Carlota Gurtek itzulpengintzarako jauzia egin zuen (alemanezko eta ingelesezko eleberriak katalanera egokituz); "Cabalgando toda la noche" (Navona, 2019) ipuin-bildumagatik Mercè Rodoreda Saria jaso eta "Sola" (Libros del Asteroide, 2020) lehen eleberrian argitaratu baino lehen. Alejandro Simón Partal idazle eta poetak, berriz, Hermanos Argensola Nazioarteko Poesia Sariarekin nabarmendutako "Una buena hora" (Visor, 2019) bezalako lanak argitaratu ditu. "La parcela" (Caballo de Troya, 2021) bere lehenengo eleberriak "Otra mirada" Cámamo Saria jaso du. Carlota Gurtek eta Alejandro Simón-ek zinemaren, antzerkiaren, saiakeraren, poesiaren eta eleberriaren arteko belaunaldi-arrasto nabarmena irudikatzen dute. Bere lanak idazkerari buruzko begirada berritzaile bat suposatzen du, mugak betiko gurutzatzen direla eta hizkuntza eta egoeren itzulpen amaigabea dela. Vicente Monroy arkitekto, idazle, itzultzaile, irakasle eta zinema-programatzailearekin batera, muturreko paisaien eta bizitza finituen arteko kontraesanari eurre egingo diote.



19:00 etan “Un desvío americano, dos novelas trasatlánticas”

Edurne Portela eta Laura Fernández, Aloma Rodríguez -rekin

Edurne Portelak Ameriketako Estatu Batuetako hainbat unibertsitatetan egin du bere ibilbide akademikoa; ohiko kolaboratzailea da prentsa idatzian eta irratan. “Mejor la ausencia” (Galaxia Gutenberg, 2017) lana Madrilgo Liburudenden Gremioko Fikziozko Urteko Libururik Onenaren Saria jaso zuen 2018an, eta italierazko itzulpenak Ciudad de Cassino Nazioarteko Literatura Saria. Laura Fernández kazetari eta kritikari literario eta musikalak idatzizko komunikabideetan egindako ibilbide luzea eta eleberrigile lana uztartzen ditu, eta sei lan argitaratu ditu, “La señora Potter no es exactamente Santa Claus” (Literatura Random House, 2021) Narratibako El Ojo Crítico Saria izanik. Aloma Rodríguez lagun dutela, elkarrizketa bat ezarriko dute Atlantikoko bi ertzak elkarren aurka jartzeko, beren ametsen eremu minatua zapaltzen duten istorioekin.



LARUNBATA, APIRILAK 2

12:00 etan “Itzultzaile berriak: mugarik gabeko literatura”

Uxue Alberdi, Garazi Arrula, Yannick Bédard, Michel Usereau, Aiora Jaka, Xabier Paya

“Europako hizkuntza itzulpena da”, Umberto Ecoren adagioak ematen dio arnas ‘Itzultzaile Berriak’ proiektuari. Munduaren hizkuntza ere itzulpena dela esan genezake. Literatura-itzulpenen bidez herrialde eta kulturen arteko zubiak eraikitzen dira, eztabaida sustatzen da, sormena pizten eta pentsamenduaren sakontasuna zabaltzen.

Literatura lan baten itzulpenak ezagutza linguistikoa eta kulturala eskatzen ditu, bi hizkuntzen arteko baliokidetasun linguistikoak bilatzetik haratago doan jarduera baita.

Atzerriko itzultzaileei bekak eskaini zaizkie euskara ikasteko, euskal kultura ulertzeko. Argia da helburua: euskaraz idatzitako literaturaren mugak zabaltzea. Lehen edizioan, nazioarteko deialdia egin ondoren, Lituania, Bulgaria, Eslovenia, Polonia, Estonia, Errusia eta Txekiako itzultzaileak trebatu ziren. Bigarren edizio honetan Quebecekoak.

Etxepare Institutuarekin elkarlanean antolatutako topaketa honetan, itzultzaile berriek eta jatorrizko lanen idazleek beren esperientziaren berri emango dute, eta itzulpengintzak eta itzulpen-prozesuak mahaigaineratzen dituen galderak, erronkak eta hausnarketak partekatuko dituzte.



17:30 etan. "Autoitzulpena: bi eskuz idaztea"

Unai Elorriaga, Xuan Bello eta Yolanda Castaño, Garazi Arrula-rekin

Xuan Bello, Yolanda Castaño eta Unai Elorriaga hiri idazle eleaniztun dira, beren hizkuntzan sortzen dute (Bello asturieraz, Castaño galegoz eta Elloriaga euskeraz) eta beren lanak gaztelaniara itzultzen dituzte. Xuan Bello asturierazko literatura garaikideko idazlerik nabarmenetako bat da (Asturiasko Literatura Sari Nazionala, Ramón Gómez de la Serna Saria, Teodoro Cuesta Poesia Saria); Yolanda Castaño poeta eta galizierazko literatur kritikaria da, eta hainbat sari irabazi ditu, hala nola, Galiziako Poesiaren Kritika eta El Ojo Crítico. Unai Elorriagak eleberriak eta saiakerak argitaratu ditu euskaraz eta gaztelaniaz, eta Espainiako Narratiba Saria, Igartza Saria, NEA International literary Award Saria eta Kritika Saria Jaso ditu.

Hirurak hainbat galderari erantzuten saiatuko dira: zer suposatzen du persona berak bi eskutara idazteak? Zein harreman ezartzen dira bi hizkuntzen artean? Zer distorsio? Zer leku du autoitzulpenak Espainiako literatura-sisteman? Garazi Arrula itzultzaile, idazle eta editoreak gidatuko du solasaldia.

19:00 etan "Géneros literarios fluidos: de la no ficción a la ficción"

Kirmen Uribe eta Sara Mesa

Kirmen Uribek 2009ko Literaturaren Sari Nazionala jaso zuen bere lehen eleberriagatik: «Bilbao-New York-Bilbao» (Elkar 2008, Seix Barral, 2010), eta "Elkarrekin esnatzeko ordua" (Susa, 2016) lanagatik Kritikaren Sari Nazionala euskaraz eta 111 Euskal Irakurleen Akademia Saria. New Yorkeko Liburutegi Publikoko Cullman Beka jaso du, bertan bere laugarren eleberria "La vida anterior de los delfines" idazteko. Bestalde, Sara Mesak sei eleberri eta hiru ipuin-liburu idatzi ditu, eta Heralde Sarian eta RNEko Begi Kritiko Sarian finalista izan da. "Un amor" (Anagrama, 2020) bere eleberria 2020an urteko liburutzat hartu zuten El País, El Cultural eta La Vanguardia komunikabideek. Bere lana hamar bat hizkuntzatarara itzuli da. Bi egileak euskal idazlearen azken eleberrietik abiatuko dira XXI. mende honetan literatur generoen arteko mugak zabaltzeko, bilaketaren eta ezarritako arauen hausturaren mendea alegia.

GUTUN ZURIA ONLINE



Gutun Zuria Bilbao 2022 presentziala eta birtuala da, zuzenean eta aurrez aurre ekoiztuko da, saio batzuetako *streaming*-en bidez; eztabaida ireki, lekukotza utzi eta hausnarketak proposatzen dituzten egileen bitartez. Hauek Jaialdiaren webgunean ikusgai egongo diren “ikus-entzunezko kapsuletan” gordeko dira. Aurten formatu honetan parte hartuko dute, besteak beste:

- AITOR ETXEBARRIA (EL_TXEF_A)
- MANEL OLLÉ
- ANGEL ERRO
- GORKA LABAKA
- VIVIAN ABENSHUSHAN
- YÁSNAYA ELENA AGUILAR
- CONCHA CARDEÑOSO
- JON MIKEL EUBA
- OSCAR VIZARRAGA / KALE DOR KAYIKO



AZ ESPAZIOA. JAIALDIKO PLAZA PUBLIKOA

Martxoak 28, 29, 30, 31 eta apirilak 1, 2 • 17:00 – 19:00

Gutun Zuria Bilbao Jaialdiak plaza publiko bihurtuko du Ataria, Az Espazioa. Espazio bizia, dinamikoa, non literatura, arte biziak, musika, irratia, poesia ibiliko diren biran, eta egunean zehar eta programazioaren arabera aldatuz joango dena.

Deialdi ireki baten bidez, hainbat sortzaile, pertsona, erakunde eta kolektibori eskaera egin zaie, Jaialdiaren gaiarekin zerikusia duten proiektuak eta ikerketa-nahiak, literatura-ekimenak eta/edo argitalpen-ekoizpenak aurkezteko eta partekatzeko. Aurkezpenetarako lekua [Jaialdiaren webgunearen](#) bidez erreserbatu daiteke.

Arratsalde-gau partean, Az Espazioa Poematikaren agertokia izango da, egunero Jaialdia itxiko duen *spoken word*-a.

ARGITALPENAK

Gutun Zuria Bilbao Jaialdian edizioak argitalpengintzak espezifikoa du. Aurten, argitalpen aurkezpenak Az Espazioan egingo dira, Jaialdiren plaza publikoan. Programan Azkuna



Zentroak ekoizitako argiltapenen aurkezpena nabarmentzen da. Argitalpen horiek Oscar Gómez Mata bezalako sortzaileen lan artistikoa bildu eta zabaltzen dute, AZ kide den artista gisa.

Catálogo de Derivas

Oscar Gómez Mata, AZ kidea & Esperanza López

Apirilak, 1 18:00 Az Espazioa

Oscar Gómez Mata aktore eta eszenografoak, Esperanza López artistarekin batera, bi urtez garatu du *Laboratorio de derivas* proiektu artistikoa AZ kide gisa. *Deriva* praktika da, non, ibiltzearen bidez, hiri-paisaiaren eta persona bakoitzaren barne-bizitzaren arteko loturak ezarri nahi diren. Egoitzan emandako denbora honetan, herritarrei zuzendutako hainbat joera aktibatu dituzte, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko.

Gutun Zuria Bilbaon aurkezten den “*Catálogo de Derivas*” delakoa egun eta umore mora desberdinetarako pentsatutako ibilaldi horiek guztiak erabiltzeko eskuliburua da.

POEMÁTICA. SPOKEN WORD

Martxoak, 30, 31 eta apirilak, 1 • 19:30etan • Kulturen Atrioa

Kulturen Atrioa Poemátikaren eszenatoki bihurtuko da arratsaldero. *Spoken word-a* da, non artistek, poetek eta performerrek ahozko poesiako hainbat ikuskizun eraikitzen dituzten, formatu tradizionaletatik urrun.

Diziplina anitzeko errezitaldi poetiko hau, Jaialdian zehar hedatua, hitz mintzatutik, hitz soinudunetik, hitz fisikotik, hitz idatzitik eta hitz eszenikotik eratuko da, Industrias Creativas Fundazioarekin, Last Tour-ekin eta Spoken Word Bilbaorekin elkarlanean garatua.

Diseinu eszenikoa: Emilio Manzano (Jaén)

Antzerkigilea, sortzailea eta interpretea. Zuzendaritza eszenikoko ikasketak egin zituen Murtziako Arte Dramatikoko Goi Eskolan. Bere lanaren oinarria da lengoaia eszeniko berrien ikerketa eta beste ikasketa eta lan eremu batzuk ekartzea pieza eszenikoak sortzeko irudi plastiko eta totalaren bidez, euskarri teknologikoa eta subjektu eta objektuarekiko, esanahi eta adierazleekiko harremanak bilatzea. Ikusleengan egoerak sortuz, mezu bakarra bilatu gabe, baizik eta irakurketa ugari eginez eta inkontzientea bultzatuz, barne-elkarrizketa bat sortzeko, inpaktu bisualaren bidez. Muntaia eszeniko ugari zuzendu ditu, besteak beste, hauek: Cachucha -not just a Spanish dance- (Austria-Espainia 2021); Pueblo//pubertad

proiektua (Proszenia beka, Getxo, 2019); eta Spoken Word Bilbao Internacional (Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao 2018).

Performerra: José Soto (Murtzia)

Aktorea da. Murtziako Arte Dramatikoko Eskolan egin zituen ikasketak, testu-espezialitatean (2011). 2012an Txileko Colectivo Ciudadano konpainiako kide izan zen, eta bertan muntaia eszeniko batzuetan parte hartu zuen: Sam Sheparden "True West", Jean Cocteauren "La machine infernale" edo "Prototipo". Muntaia horretan, antzezle-taldea integratzeaz gain, dramaturgiako eta eszenaratzeko lan nagusia egin zuen, lengoaia berrien ikerketan oinarritutako testuinguru eszeniko batera egokituz.

Gaur egun, bakarkako lehen lana prestatzen ari da, eta Vita Borealis Elkartearen kide sortzaileetako bat da. Elkarte berri horrek Sierra Espuñan (Murtzia) du egoitza, eta kultura, artea, espiritualitasuna eta pentsamendu aske eta kritikoaren defentsa lantzen ditu.

PROGRAMA

Asteazkena, martxoak 30

Alba. G (Asturies)

Poeta, kultura-asaldatzailea, aktibista, feminista, antzerkigile berria eta lehen urratsak egiten ari den enpresaria: Alba. G Asturiasko underground poesiako ahotsik zatar eta dibertigarrietako bat da.

Gai da bertsoa barre bihurtzeko eta barrea hostia bilakatzeko. "Estoy más buena que Dios" (La Novia de Nadie, 2016) poema-liburua argitaratu du. "Mordiendo la verdad" estreinatu berri du, indarkeria sexistaren aurkako Eszena saria irabazi zuen testua (2019).

Dani Orviz (Bartzelona)

Poeta, bideo-artista, slammer, performer eta juglare 2.0., Dani Orviz "poetry slam" mugimenduko ordezkari handienetako bat eta munduko txapelduna da. Toki hauetan aritu da, besteak beste: Voix Vives (Frantzia), Festival Internazionale di Poesia di Genova (Italia), Sziget (Hungaria), Runo Viikko (Finlandia), Crazy Tartu (Estonia) eta Festival de la palabra de Puerto Rico. TVEko "Deslenguados" saioaren aurkezlea da.

Osteguna, martxoak 31

Bagan mundo (Euskadi)

Sukaldaria lanbidez eta poeta deboziaz. Idatzitik ahozkoa eta ahozkotik idatzira, Alain Torresek distira egin du ahozko poesiaren bertako eszenan, eta hamaika agertokitara igo da. Estatuko hainbat jaialditara bidaiatu du bere errezitaldiekin, eta “poetry slam” doktrinan egin duen lana nabarmentzen da, euskarazko hainbat piezarekin. Bere poesia, erraztasunaren etsai eta hauskorraren behatzaile, gaztelaniatik euskarara doa, ikusleen arretea airean edukiz.

Dúas gamberras e un micro

Nuria Vil eta Vanessa Glemsele (Galizia)

«A volta de torniqueta dos recitais poéticos. A literatura non está só nos libros e por iso a buscamos nos bares». Horrela aurkezten dute beren burua Dúas gamberras e un micro (Bi ganberro eta mikro bat), Nuria Vil eta Vanessa Glemselek eraturako ahozko poesia eta esku-hartze eszenikoko proiektua. 2016az geroztik, baratzetik baratzera bidaiatzen dute estatuko geografiatik, literarioaren eta inprobisazioaren mugen artean jolastuz, ahozkotatasunaren bidez. Ahotik muskerrak eta sugeak atereaz.

Ostirala, apirilak 1

Isabel Martín (Huelva)

Poeta eta genero-arkitektoa. Isabel Martínek bere poemetan salatzen du gainezka egindako eta erabat deshumanizatutako turismoaren zentzugabekeria, parean aurkitzen duen guztia suntsitzen duen kapitalismo basatiaren beste erokeria bat baita. Baina bere poesian salaketa ekologikoa baino askoz ere gehiago dago. Kezkatzen dute feminismoak, lurralde-azpigarapenak, egunerokotasunaren balioak eta haren izaera politikoak, historiak eta memoriak, iraganeko, oraingo eta etorkizuneko emakumeek eta haien isilune guztiek.

Pablo X. Suárez + Dudu García (Asturias)

“El velcro” spoken word elektronikoko proiektua da, Pablo X. Suárez poeta eta rapsodaren eta Dudu García multiinstrumentista eta ekoizlearen arteko topaketaren emaitza. D'n'b edo dubstep-aren erritmo sinkopatuekin limurtzen duten testura teknoek psikodelia kostunbrista babesten dute, irudi harrigarri eta ironia atlantiko betetako testu batzuetan. Dekadentziari egindako ereserkiak, Mendebaldeko ertzetatik, asturiera arruntez kantatuta, Asturias Underground-en bihotz ezkututik. Hurbileko exotismoa.

AFRIKA BIBANG, SOUL-A EUSKERAZ

Larunbata, apirilak 2 • 21:00 • Kubo Baltza

Afrika Bibang abeslari bizkaitarrak amaiera musikala emango dio Jaialdiari Auditorioan emango duen kontzertuarekin. "Nomanda" (2019) argitaratu eta gero, artista bere "Ispiluaren aurrean" (Huracan29 Records) lanarekin itzultzen da. Bertan, soul eta R&B soinuekin leial jarraitzen du eta Motown klasikoaren eta neo soularen arteko soinu-paleta erakusten du.



ALICIA MARTÍN TRANSFERENCIA

Martxoak 28, 29, 30, 31 eta apirilak 1, 2. Eguzkiaren Pantailan.

Alicia Martín artista multidiziplinarrak (Madril, 1964) Transferencia ikus-entzunezko lana sortuko du Gutun Zuria Bilbaorentzat. Azkuna Zentroaren ekoizpen hau Mediatekaren garbiketarik ateratako liburuekin eratuta dago, eta aurten Jaialdi osoa zeharkatuko duen itzulpenaren ikuspegiaren kokatzen da, translazio eta transferentzia gisa ulertuta.

Era berean, Auditoriumeko eszenatokian, Alicia Martín-ek "Contemporáneos" artelana instalatuko du, Jaialdian zehar sortuko den liburu, pentsamendu, gogoeta eta ezagutzaren gainezkatze hau hormara eramanez.

POZ POP LIBURUTEGI MUGIKORRA

Martxoaren 21etik 27ra. Bilboko hainbat gun

Gutun Zuria Bilbao Alhóndigaren barruan eta kanpoan egingo da. Poz Pop, Gutun Zuria Bilbaoko liburutegi mugikorra egunero jarriko da hiriko leku desberdin batean, karta zuri bat proposatuz liburuen orrialdeak arakatzeko eta eszenografia osatzen duten beste elementu bisual batzuekin elkarreraginean aritzeko. Horrela, Jaialdia egunero osatzen da aire zabaleko pop up liburutegi batekin, Bilboko hainbat tokitan.

JARDUERAK



Martxoak 28, 29, 30, 31 eta apirilak 1, 2

Gutun Zuria Letren Nazioarteko Jaialdia zentroko programazioan eta espazioetan zehar hedatuko da:



Gutun Zuria Irratia. Gutun Zuria irrati moduan ere hedatzen da. Fisikoki Atrioaren Erdiko Kuboan kokatuta, soinu-leiho hau topaketarako, hizketarako eta elkarrizketarako gune gisa osatzen da, eta Jaialdiaren soinu-bankuaren parte izango da podcast-en bidez.

LiburudendAZ. DendAZ, Azkuna Zentroaren denda, Jaialdiaren liburu-denda eta egileekin elkartzeko erreferentziako gunea izango da.

Aktibitateak BBK Mediatekan

Itzulpengintza, komunikazioa eta hizkuntza eta formatu desberdinen arteko esplorazioa dira BBK Mediatekan Jaialdian eta honen ondoren garatzen diren jardueren oinarria. Haur eta familientzako eta helduentzako proposamenak dira, idatzizko hizkuntzaren eta arteetako hizkuntzaren arteko elkarrizketan oinarrituta.

EGILEAK

Santiago Auseron (Zaragoza, 1954) kantaria, konpositorea, idazlea eta filosofoa da. Radio Futura (1979-1992) musika-taldeko konpositore eta abeslaria izan zen; taldea hasiera batean «movida madrileña» deiturikoaren barruan zegoen, eta gerora rock latino deitu zenaren ernamuin bihurtu zen. Taldea banandu ondoren bakarkako ibilbide musikalaria ekin zion, Juan Perro ezizenarekin, besteak beste, Kubako sona, Afrikako musika, jazz eta bluesa uztartzen dituen eklektizismoaz. Filosofian doktorea da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984). Idazlea eta bertsolaria. Aulki bat elurretan (Elkar, 2007) eta Euli-giro (Susa, 2013) kontakizun-liburuak; Aulki-jokoa (Elkar, 2009) eta Jenisjoplin (Susa, 2017, 111 Akademia saria) eleberriak; Kontrako eztarritik (Lisipe-Susa, 2019, Euskadi Saria) saiakera; eta Dendaostekoak (Susa, 2020) literatura-kronika idatzi ditu. Haur-literaturako hainbat lan ere argitaratu ditu, besteak beste, Poza eta Besarkada (2016ko Euskadi Saria) albumak. Bere narratibako lanak Consonni argitaletxeak eman ditu argitara gaztelaniaz



(Jenisjoplin eta La trastienda izenburupean) eta Reikiavik ediciones-ek argitaratu zuen *Reverso: testimonios de mujeres bertsolaris saiakera*. Halaber, Uxue Alberdik itzuli zuen Alfonsina Storniren poemen antologia *Munduko Poesia Kaierak* bildumako.

Cristina Morales (Granada, 1985). Zuzenbidean eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna eta Nazioarteko Harremanetan aditua, eleberri hauen egilea da: *Los combatientes* (Caballo de Troya, 2013; Anagrama, 2020, 2012ko Narratibako INJUVE saria); eta *Lectura fácil* (Anagrama, 2018, 2018ko Herralde saria; 2019ko Narratibako Sari Nazionala). Bere ipuinak antologia eta aldizkari literario askotan agertu dira. Gaur egun Bartzelonako La Caldera sormen-fabrikako artista egoiliarra da, Iniciativa Sexual Femenina dantza garaikideko konpainiako kide gisa.

Elaine Vilar Madruga (La Habana, 1989) (Habana, 1989) Antzerkigilea, narratzailea eta poeta. Arte Teatralean lizentziaduna da, Dramaturgia espezialitatean, Goi Mailako Arte Institutuan (ISA), eta idazketa sortzaileko irakaslea ere bada. Bere testuak mundu osoko antologia askotan argitaratu dira, eta sari ugari jaso ditu Kuban eta nazioartean. Bere azken eleberria, *La tiranía de las moscas* (Barrett, 2021, 2021eko Urteko Liburu Onenaren Cálamo Saria), arrakastaz merkaturatu da Espainian eta Argentinan, eta italierako eta portugeseko itzulpena prestatzen ari da. Gaur egungo Kuba literarioko ahots gazterik garrantzitsuenetako bat da.

María Mur editorea da Consonni argitaletxea eta kulturgune independentean, eta 1999. urtetik lan egiten du bertan. Consonnik 1996. urtetik ekoitzi eta editatzen du kultura kritikoa, letra xehez idazten da eta izaki androginoa eta polizefala da, feminismoak eta entzutea super botere gisa dituela. Gainera, Murrek idatzizko, ahozko edo isildutako hitza hainbat formatutan erabiltzen du, hainbat hedabidetan argitaratuz, kultur politikei, feminismoei eta kulturak esfera publikoa sortzeko dituen aukerei buruzko eztabaidetan lagunduz.

Gabriela Wiener (Lima, 1975) Idazlea eta kazetaria da. Liburu hauek argitaratu ditu: *Sexografías*, Melusina, 2008; *Nueve Lunas* Random House, 2009, reedición-2021; *Llamada perdida*, Malpaso Ediciones, 2015; *Dicen de mí*, *Esto no es Berlín*, 2018; eta *Huaco Retrato*, Random House, 2021. Gainera, *Ejercicios para el endurecimiento del espíritu* poema-liburua atara du, *La bella Varsovia*, 2014. Bere testuak nazioko eta nazioarteko antologietan agertu dira, eta ingelesera, portugesez, poloniarera, alemanera, frantsesera eta italierara itzuli dira. Espainiako Marie Claire aldizkariako erredaktoreburua izan zen. *elDiario.es* eta *lamula.pe* egunkarietarako idazten du. 2018an bere herrialdeko Kazetaritza Sari Nazionala irabazi zuen, genero-indarkeriaren kasu bati buruzko ikerketa-erreportaje batengatik.

Bibiana Candia (Coruña, 1977) idazlea eta kazetaria da. Lan hauek argitaratu ditu: La rueda del hámster (Torremozas, 2013) eta Las trapezistas no tenemos novio (Torremozas, 2016) poema-liburuak; El pie de Kafka (Torremozas, 2015) kontakizun-liburua; eta Fe de erratas (Ediciones Franz, 2018) narrazio-artefaktua. Jot Down eta Letras Libres argitalpenekin lan egiten du. Azucra da bere lehen eleberria (Pepitas de Calabaza, 2021), El Culturaleko kritikariek 2021eko narrazio-debut onenetakotzat hartua.

Iván de la Nuez (Habana, 1964) saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa da. Bere lanen artean, hauek nabarmentzen dira: La balsa perpetua (Casiopea, 1998); El mapa de sal (Periferia, 2010); Fantasía Roja (Debolsillo, 2010); El comunista manifiesto (Galaxia gutenberg, 2013); Teoría de la retaguardia (consonni, 2018); eta Nunca real / Siempre verdadero (Azkuna Zentroa, 2021). Erakusketa hauek egin ditu: La isla posible, Inundaciones, Parque humano, Postcapital, De Facto. Retrospectiva de Joan Fontcuberta, Atopía. El arte y la ciudad en el siglo XXI, Iconocracia, Pintar contra el tiempo eta Nunca real / Siempre verdadero. Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa.

Higinia Garay (Bilbo, 1978) ilustratzailea, diseinatzailea eta irakaslea da. Arte Ederretan lizentziaduna da, Argitalpen Diseinuan graduondokoa egina du Madrilgo Diseinuko Europako Institutuan, eta 2013tik bere estudioaren ardurapean lan egiten du. Bere ibilbideari eta sentsibilitateari esker, genero-desberdintasunarekin eta giza eskubideen urraketarekin lotura duten gaietan espezializatu da. Bere lana, besteak beste, Azkuna Zentroaren Fatxada proiektuan egon da, eta, gaur egun, Komikiaren Nazioarteko Egonaldia egiteko Zentroak aukeratutako artistetako bat da.

Marine des Mazery komikigilea eta ilustratzailea da. Phasmes eta antzeko beste fanzine batzuetan hasi ondoren, 2021eko uztailean irakurketa bikoitzeko Le Roi Jehan komikia argitaratu zuen (Lapin arg.), eleberrigilea den Bénédicte des Mazery bere amarekin batera idatzia. Hilabete batzuk geroago, 2021eko urrian, Lily Cane arrête de fumer komikia iritsi zen liburu-dendetara (First arg.), eta hainbat ilustrazio marraztu zituen horretan. Bere azken proiektua Comic Art Europe-rako aukeratu dute, eta Lyon BD Jaialdian eta LICAFen (Erresuma Batua) erakutsiko dute 2022an. Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image (Angoulême) espazioak hautatutako artista.

Jimmy Beaulieu (Île d'Orléans, 1974) marrazkilaria, komikigilea, liburu-saltzailea, erakusketa-komisarioa eta kritikari kanadarra. 'Mécanique Generale' zigiluaren sortzaileetako bat izan zen, eta bertan argitaratu zituen lehen liburuak: Le morale des troupes (2004) eta Ma voisine en maillot (2006). 2009. urteaz geroztik, autore-lanetan

dihardu, eta, besteak beste, lan hauek argitaratu ditu: *À la faveur de la nuit* (Les Impressions nouvelles, 2010); *Comédie sentimentale pornographique* (Shampooing, 2012).

Marian Ochoa de Eribe (Bilbo, 1964) Literatura Konparatuan doktorea, idazlea eta itzultzailea da. Espainiako literaturari buruzko ikastaroak eman ditu Deustuko Unibertsitatean, eta Constanza (Errumania) "Ovidius" Unibertsitateko Espainiera Saileko irakaslea izan da. Horrez gain, Pre-Textos-en argitaratutako Panait Instratiren Kyra Kyralina eta El tío Anghel itzulpenen egilea da. Errumaniako Mircea Cărtărescu idazlearen ia obra osoa itzuli du, eta Nostalgia (Impedimenta, 2012) lanarekin Estado Crítico de Traducción saria jaso zuen 2012an. Bere azken itzulpena Tatiana Țîbuleac-en El jardín de Cristal da (Impedimenta, 2021). Itzultzaile gisa egindako lanagatik, Errumaniako Kultura Institutuak literatura sortzeko beka bat eman zion (2017).

Javier Calvo (Bartzelona, 1973). Eleberrigilea eta itzultzaile literarioa da. David Foster Wallace, J. M. Coetzee, Don DeLillo, Joan Didion, Salman Rushdie, Iain Sinclair, Joy Williams edo William Blake idazleen lanak itzuli ditu. Bere eleberrien artean honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste: *Corona de flores* (Random House, 2010, 2011ko Gijónko Aste Beltzeko Silverio Cañada Memorial Saria); *El jardín colgante* (Seix Barral, 2013, 2012ko Liburutegi Laburraren Saria); *Piel de plata* (2019); eta *El fantasma en el libro* (Seix Barral, 2016) saiakera. Bere lana ingelesera, frantsesera, alemanera eta italierara itzuli da.

Koro Navarro (Donostia, 1955). Filologia Hispanikoa ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta irakasle-lanetan ere aritu zen bertan. Martuteneko Itzultzaile Eskolan jardun zuen gero, Hizkuntza eta Literaturako eskolak emanez (1981-1986), eta han gertutik ezagutu zuen itzulpengintzaren mundua. 1988an argitaratu zuen lehen liburu itzulia, Patricia Highsmith-en *Poliki*, poliki haizetan, eta harrezkero etengabe aritu da itzulpenean. Hamarkada batez (1991-2000) *Lur Hiztegi Entziklopedikoan* aritu zen, zuzenketa-lanetan batez ere. 2003ko urtarrilean euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta urte horretan bertan Literatur Itzulpenaren Euskadi Saria irabazi zuen, Isaac Bashevis Singerren Zortzi kontakizun lanarekin. 2008an Zaitegi Saria jaso zuen, Doris Lessingen *Belarra* kantari liburuagatik, eta 2016an, Vitoria-Gasteiz itzulpen saria Edgar Allan Poeren *Katu beltza* eta izumenezko beste ipuin batzuk itzulpenagatik.

Beñat Sarasola (Donostia, 1984) idazlea eta ikertzailea da. Literatura Teorian eta Literatura Konparatuan doktorea Bartzelonako Unibertsitatetik; gaur egun irakaslea eta ikertzailea da UPV/EHU. Argitalpenen artean, *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh!* Euzkadi (Labayru, 2015) nabarmentzen da, Santiago Onaindia bekari esker egina. Idazle gisa, bi poema-liburu ditu argitaraturik, *Kaxa huts bat* (Susa, 2007) eta *Alea* (Susa, 2009), eta

eleberri bat ere bai, Deklaratzekorik ez (Susa, 2019). Editore-lanetan, Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaiarak bilduma zuzendu du, munduko poesia garaikide modernorik onena euskarara itzultzen duena.

Theodor Kallifatides (Grezia, 1938) idazle suediar-greziarrak fikzioa, saiakera eta poesia lantzen ditu. Berrogei liburu baino gehiago argitaratu ditu eta hainbat hizkuntzatarara itzulita daude. Egile handiak itzuli ditu suedieratik grekora, hala nola Ingmar Bergman eta August Strindberg, baita grekotik suedierara ere, esaterako, Giannis Ritsos eta Mikis Theodorakis. Gaur egun Suedian bizi da, eta sari ugari jaso ditu Grezian eta Suedian egindako lanagatik, besteak beste, Greziako Literatura Testimonialeko Sari Nazionala, Lo pasado no es un sueño lanagatik, Galaxia Gutenberg, 2013). Bere azken argitalpenen artean, hauek nabarmentzen dira: Otra vida por vivir (Galaxia Gutenberg, 2019. «Extraordinario 2019» Cálamo Saria); El asedio de Troya (Galaxia Gutenberg, 2020); Madres e hijos (Galaxia Gutenberg, 2020); eta Lo pasado no es un sueño (Galaxia Gutenberg, 2021).

Jhumpa Lahiri (Londres, 1967) idazle indobritainiar-estatubatuarra da, eta kontakizun hauen egilea da: El intérprete del dolor, Mariner Books, 1999 (Salamandra, 2021), besteak beste, honek Pulitzer saria eman zion eta 600.000 ale saldu zituen Estatu Batuetan; edo Tierra deslotada, Salamandra, 2008, 2008ko Libururik Onena, The New York Times egunkariak, kritikak goraiatua eta salmenten arrakasta nabarmena. Eleberri hauek nabarmentzen dira: El buen nombre, Emece, 2003; La hononada, Salamandra, 2013; eta Donde me encuentro, Lumen, 2018. 2012an Arte eta Letren Estatu Batuetako Akademitan sartu zen, eta 2015ean Giza Zientzien Domina Nazionala jaso zuen, baita Guggenheim Beka bat ere. Domenico Ataduras y Scherzetto eleberriak itzuli ditu ingelesera eta gaur egun Erroman bizi da.

Bashkim Shehu (Tirania, 1955) idazlea eta itzultzailea, eta Albaniako Literaturan eta Filologian lizentziaduna da Tiranako Unibertsitatean. Gidoilari gisa lan egin zuen zinematografiako estudio nazionalean 1979tik 1981era bitartean. Orduan, konfinamendu-eta kartzela-aldia hasi zen harentzat, bi aldiz egon baitzen zigortuta iritzi-delituengatik, 1991ra arte. Erbestean bizi izan da, lehenik Budapest (1992-1995) eta gero Bartzelonan (1997tik). Bertan, Idazleen Nazioarteko Parlamentuko ordezkari gisa (1998-2000) eta CCCBko zuzendari nagusiaren aholkulari gisa (2001-2011) lan egin du. Bere literatura-lanak hainbat hizkuntzatan argitaratu dira, eta nazioan eta nazioartean jaso dituzte sariak. Literatura, filosofia eta gizarte-zientzietako lanak ere itzultzen ditu (Camus, Borges, Cortázar, Rodoreda, García Márquez, Bernardo Atxaga, Cabré, Bolaño, Javier Marías, Javier Cercas, Kirmen Uribe, besteak beste).

Iñaki Esteban (Amurrio, 1961). El efecto Guggenheim, Anagrama, 2007 eta Libertad y sentido en las sociedades democráticas, Biblioteca Nueva, 2003 (Saiakerako Miguel de Unamuno saria) lanen egilea. El Correo -Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Masterreko irakaslea, kazetari gisa lan egiten du El Correon, eta hainbat kultura-argitalpenetan kolaboratzen du, hala nola, Bilbao egunkariko Pérgola gehigarrian eta literaturari buruzko irratsaio batzuetan. 2002an, Kataluniako Editoreen Gremioak Atlantida Saria eman zion urteko artikulugile onenari.

Tania Adam Safura (Maputo, 1979). Kazetaria, kultur ekoizlea eta *Ràdio África Magazine*-ren sortzailea. Diziplina anitzeko jardunean Afrikako migrazioak, diáspora beltzak eta Afrikako herri-musikak aztertzen ditu. “Microhistorias de la Diáspora. Experiencias encarnadas de la dispersión femenina” (La Virreina, 2018-2019) komisariatatu du, baita “Making Africa: Un continente de diseño contemporáneo” (CCCB, 2016) aktibitate programa, “Africanismo en el Patio de las Mujeres” (CCCB, 2016) eta Espai Avinyó-ko (2011-2012) erakusketak ere. Halaber, elkarrizketa saioa aurkeztu du Betevén (2017-2019) eta Radio Primavera Sound-en (2019). Gainera, nazioko zein nazioarteko erakundeen hainbat eztabaida eta hitzalditan parte hartzen du.

Elvira Dyangani Ose (Kordoba, 1972) Bartzelonako Museu d'Art Contemporani museoko zuzendaria da. Aurretik, Londresko The Showroom-eko zuzendaria izan zen. Goldsmithseko Kultura Bisualen Departamentuko irakaslea eta Fondazione Pradako Pentsamenduko Kontseiluko kidea. Aurretik, Goteborgko Arte Garaikidearen Nazioarteko Bienalaren zortzigarren edizioko kuradorea eta Tate Moderneko nazioarteko arte-kuradorea izan zen.

June Fernández (Bilbao, 1984) kazetaria da, bai eta komunikazio feministako hezitzaile eta aholkularia ere. 2010ean, Pikara Magazine aldizkaria sortu zuen. 2010ean sortu zenetik, gaztelaniazko hiztunen komunitateentzako erreferentzia-komunikabide feminista bihurtu da.

Hamar urtez Pikara koordinatzen aritu ondoren, gaur egun medio horren eta ARGIA aldizkariaren ohiko kolaboratzailea da, eta hainbat komunikabide alternatibo eta kritikotan argitaratzen du. Libros del K.O. argitaletxearekin batera, bi kazetaritza feministako liburu argitaratu ditu: 10 ingobernables, 2016, eta Abrir el melón, 2020. SOS Racismo Bizkaiako militantea izan zen. Gaur egun, Larrabetzuko kolektibo feministan dabil, eta AMUGE emakume ijitoen elkartearekin lankidetzan dihardu.

Laura Fernández (Terrassa, 1981) sei eleberriren egilea da: Bienvenidos a Welcome (Elipsis, 2008), Wendolin Kramer (Seix Barral, 2011), La Chica Zombie (Seix Barral, 2013), El Show de Grossman (Aristas Martínez, 2013), Connerland (Literatura Random House,

2017), eta *La señora Potter no es exactamente Santa Claus* (Literatura Random House, 2021, El Ojo Crítico de Narrativa 2021 Saria). Kazetaria eta literatura- eta musika-kritikaria ere bada, eta ibilbide luzea egina du idatzizko hedabideetan. Bere ipuinak antologia askotan jaso dira, eta ingelesera, frantsesera eta italierara itzuli dira. 2021ean AECIDek (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak) aukeratu zuen "10 de 30" programaren hirugarren edizioan. Programa horrek atzerrian ezagutarazi eta sustatu nahi du 30 eta 40 urte bitarteko hamar bat idazle espainiarren lana.

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962). Idazlea eta literatur itzultzailea, helduentzat nahiz haur eta gazteentzat idazten du. Besteak beste, Forough Farrokhzad poeta irandarraren edota Skolastique Mukasonga ruandarraren obra ekarri ditu eskarara. Kritikaren saria jaso zuen 2001ean eta 2011n, Azalaren kodea, Susa, 2001 eta Bitsa eskuetan, Susa, 2011, poema-liburuengatik; eta Euskadi saria hiru aldiz Itsaslabarreko etxea S.M. Aizkorri, 2000; Urtebete itsasargian, Elkar, 2006; eta Errepidea, Erein, 2011 gazte-nobelei esker. Kristalezko begi bat nobelak, Susa, 2013; eta Hezurren erretura, Susa, 2019, ipuin-bildumak kritikaren eta irakurleen harrera beroa izan zuten. 2020an *Nola gorde errautsa kolkoan*, Susa, 2020, poema-liburua argitaratu zuen, Espainiako Poesia Sari Nazionala. Biritan jaso du Vitoria-Gasteiz haur eta gazte itzulpen saria.

Eduardo Moga Bayona (Bartzelona, 1962). Poeta eta idazlea da. Zuzenbidean lizentziaduna eta Filologia Hispanikoan doktorea Bartzelonako Unibertsitatean. Hainbat poema-liburu argitaratu ditu, hala nola *La luz oída* (Rialp, 1996, Adonáis saria, 1995); *Las horas y los labios* (DVD, 2003); *Cuerpo sin mí* (Bartleby, 2007); *Bajo la piel, los días* (Calambur, 2010); *Insumisión* (Vaso Roto, 2013); *Muerte y amapolas en Alexandra Avenue* (Vaso Roto, 2017); *Mi padre* (Trea, 2019); eta *Tú no morirás* (Pre-Textos, 2021). Ramon Llull, Frank O'Hara, Charles Bukowski, Arthur Rimbaud, William Faulkner eta Walt Whitman idazleak itzuli ditu, besteak beste. Extremadurako Eskualdeko Editoreko zuzendaria izan da, eta Extremaduran Irakurketa Sustatzeko Planaren koordinatzailea ere bai. *Corónicas de España* bloga du.

Carlota Gurt Daví (Bartzelona, 1976) itzultzailea eta idazlea da. Itzulpengintza eta Interpretazioa, Giza eta Enpresa Zientziak, Ekialdeko Asiako Ikasketak eta Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zituen. 1998 eta 2010 bitartean, arte eszenikoen arloan lan egin zuen, batez ere *La Fura dels Baus* delakoan, eta *Temporada Alta* Jaialdian produkzio-buru gisa. Ondoren, itzulpengintza mundura jauzi egin zuen. Bost urtez antzerkiaren eta itzulpen korporatiboaren gaititulazioan aritu zen. Orain, itzulpengintza editoriala du ardatz, batez ere eleberriak, alemanetik eta ingelesetik katalanera. 2019an Mercè Rodoreda saria irabazi

zuen Cabalgar toda la noche, Navona, 2019, ipuin-bildumarekin; eta 2020an Sola, Libros del Asteroide, 2020, lehen eleberria argitaratu zuen.

Alejandro Simón Partal (Estepona, 1983) idazlea eta poeta da. Bere bibliografian, bosgarren poema-liburua nabarmentzen da, Una buena hora (Visor, 2019, Hermanos Argensola Nazioarteko Poesia Saria) eta La fuerza viva lana (Pre-Textos, 2017, Arcipreste de Hita). Bere azken lan dramatikoa, Resistencia y Sumisión (2019), Echegaray Faktoriak aukeratu eta Sigfrid Monleónek zuzendu zuen. Egile egoiliarra izan da Zaragozako Etopia Arte eta Teknologia Zentroan, eta Frantziako eta Txekiar Errepublikako unibertsitateetan ere lan egin du. La parcela (Caballo de Troya, 2021, "Otra mirada" Cálamo Saria) da bere lehen eleberria.

Vicente Monroy (Toledo, 1989) arkitektoa, idazlea, itzultzailea, irakaslea eta zinema-programatzailea da. Liburu hauen egilea da: Los Alpes marítimos eleberria («Nuevos Episodios Nacionales» bilduma, Lengua de Trapo, 2021), Contra la cinefilia saiakera (Clave Intelectual, 2020), eta Las estaciones trágicas (Editorial Suburbia, 2018), Rojo brutal fluorescente (LUMA Foundation, 2017) eta El gran error del siglo XXI (Editorial Malos Pasos, 2015) poema-liburuak, besteak beste. Zenbait antologiatan parte hartu du, hona berriena: Millennials. 9 poetas, Alba Editorial, 2022. Gaur egun Cineteca Madrid-eko programatzailea da eta pentsamendu zinematografikoari buruzko ikastaroak ematen ditu Espai Crisi-n.

Laura Fernández (Terrassa, 1981) es autora de seis novelas: "Bienvenidos a Welcome", Elipsis, 2008; "Wendolin Kramer", Seix Barral, 2011; "La Chica Zombie", Seix Barral, 2013; "El Show de Grossman", Aristas Martínez, 2013; "Connerland", Literatura Random House, 2017; y "La señora Potter no es exactamente Santa Claus", Literatura Random House, 2021 (Premio El Ojo Crítico de Narrativa 2021). También es periodista y crítica literaria y musical con una larga trayectoria en medios escritos. Sus cuentos han sido incluidos en numerosas antologías y ha sido traducida al inglés, el francés y el italiano. En 2021 fue seleccionada por la AECID (Agencia Española de Cooperación Internacional) en la tercera edición del programa "10 de 30", que busca dar a conocer y promocionar en el extranjero la obra de una decena de escritores españoles entre los 30 y los 40 años.

Edurne Portela (Santurtzi, 1974). Historian lizentziaduna (Nafarroako Unibertsitatea), Literatura Hispanikoetan doktorea (University of North Carolina, Chapel Hill, AEB), Lehigh University-ko (Pennsylvania) literaturako irakasle titularra 2015era arte. Ikerketa akademikoan artikulua ugari eta Displaced Memories: The Poetics of Trauma in Argentine Women Writers saiakera argitaratu zituen. Lan hauek eman ditu argitara: El eco de los

disparos: Cultura y memoria de la violencia (Galaxia Gutenberg, 2016); Mejor la ausencia, bere lehen eleberria (Galaxia Gutenberg, 2017, Madrilgo liburu-denden gremioko fikziozko urteko liburu onenaren 2018ko saria, eta Ciudad de Cassino Hiriko Nazioarteko Literatura Saria italierara egindako itzulpenarekin); Formas de estar lejos (Galaxia Gutenberg, 2019); eta Los ojos cerrados (Galaxia Gutenberg, 2021). Aldizka kolaboratzen du prentsa idatzian, Cadena Ser irratian eta Radio Euskadin.

Aloma Rodriguez (Zaragoza, 1983). Filologia Hispanikoan lizentziaduna. Honako lan hauek argitaratu ditu: “París tres”, Xordica, 2007; “Jóvenes y guapos”, Xordica, 2010; “Solo si te mueves”, Xordica, 2013; eta “Siempre quiero ser lo que no soy”, Editorial Milenio, 2021. “Heraldo de Aragón”n idatzi ohi du, Letras Libres aldizkarian kolaboratzen du, eta editorea izan da “Ahora”n.

Yannick Bédard (Québec, 1981) Itzulpengintza ikasi zuen Laval Unibertsitatean. Aurretik eta ondoren, hainbat herrialdetan bizi izan zen, esate baterako, Nunaviken, Yukonen, eta azkenean, Hego Euskal Herrian. Itzulpengintzako lizentzia amaitu ondoren, 10 urtez aritu zen ingelesetik frantseserako itzultzaile gisa, eta 2015ean hasi zen gaztelaniatik itzultzen. 2012an Bidarte hizkuntza akademia sortu zuen Donostian; ingelesa, rantsesa eta alemana irakasten zituen. 2018tik aldi bereko interpretea da.

Xabier Paya (Getxo, 1982) Bertsolari, itzultzailea eta kultur eragilea da. Hainbat literatur lan itzuli ditu euskarara: Desio izeneko tranbia (A Streetcar Named Desire), Bizitza amets (Life is a dream), Maite nuen (Je l’amais), Herria (Le Pays), Bob Dylan: 100 kantu... Quebecen eta Euskal Herrian osatu zituen Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak.

Michel Usereau Ikasketaz hizkuntzalaria, Michel Usereau frantseseko irakaslea da 2000. urtetik: Quebeceko frantsesa irakasten die Montrealeko etorkin helduei. Euskararen originaltasunak erakarrita, 1998an hasi zen hizkuntza hori ikasten. Gerora, Urepeleko, Lazkaoko eta Lesakako barnetegietan egon zen, eta hamar hilabete pasatu zituen Iparraldean eta Hegoaldean, euskal kulturaren aberastasuna deskubrituz: musika, bertsolaritza, zinema, baita literatura ere, Kutsidazu bidea, Ixabel eta Obabakoakeko istorio bati esker. 2002tik 2006ra, Montrealeko euskaraikastaro baten antolakuntzan hartu zuen parte, eta ikastaroak eman zituen bertan.

Unai Elorriaga (Algorta, 1973). Euskal Filologian lizentziaduna, idazlea eta itzultzailea da, eta eleberririk eta saiakerak argitaratu ditu euskaraz eta gaztelaniaz. Literatura-lanaz gain, testuliburuaren argialetxe batean lan egin du eta irakasle aritu da Bilboko Labayru Ikastegian, prentsa idatzian ere aritu da eta literaturako kritikari-lanak ere egin ditu. Bere bibliografian,

lan hauek nabarmentzen dira: SPrako tranbia (Elkar, 2001, Narratibako Sari Nazionala 2002); Van't Hoffen ilea (Elkar, 2003, Igartza saria 2002); Vredaman (Elkar, 2005, NEA International Literary Award saria, 2010); Londres kartoizkoa da (Elkar, 2009); lazko hezurak (Susa, 2014, Kritikaren Saria 2015); Iturria (Susa, 2019, Kritikaren Saria 2019).

Xuan Bello (Paniceiros, 1965). Asturierazko literatura garaikideko idazle nabarmenetako bat da, eta hizkuntza horretako literaturaren dinamizatzailerik handienetako bat ere bai. Poeta, narratzailea eta portugeseko itzultzailea da, eta idatzizko hainbat hedabidetan kolaboratzen du. Bere bibliografian hauek nabarmentzen dira, besteak beste: Historia universal de Paniceiros (Edicions Positivas S.L., 2008); Os nomes da terra (Edicions Positivas S.L., 2010); Escrito en el jardín (Xordica Editorial, 2017); La historia escondida (Xordica Editorial, 2019); Incierta historia de la verdad (Rata, 2019); eta Crisis (Catedral, 2020). Asturiasko Literaturako Sari Nazionala, Ramón Gómez de la Serna saria eta Teodoro Cuesta Poesia Saria jaso ditu.

Yolanda Castaño (Santiago de Compostela, 1977) galizierazko poeta, kultura-kudeatzailea eta literatura-kritikaria da. Filologia Hispanikoan lizentziaduna da Coruñako Unibertsitatean. Bere bibliografian, honako hauek nabarmentzen dira: Vivimos no ciclo das Erofanías (Espiral Maior, 1998, Galiziako Poesiaren Kritika Saria, 1998) eta Profundidad de Campo (Visor libros, 2009, El Ojo Crítico 2009). Telebistako gidolaria eta aurkezlea, arte eta poesiako erakusketen komisarioa, haur eta gazteen literaturako egilea, itzultzailea eta saiakera-egilea ere bada; bere lanak hogeitatu bat hizkuntzatan eman dira argitarara. Lantzen dituen proiektuetan, poesia beste arte batzuekin nahastekatzen da, hala nola plastika, musika, performance, dantza, arkitektura, ikus-entzunezko edo gastronomiarekin.

Garazi Arrula (Tafalla, 1987) Itzulpengintza eta interpretazioa lizentzia ikasi, eta 2018an doktoretza tesia aurkeztu zuen autoitzulpenaren arloan. Hainbat kultur egitasmotan parte hartu du, eta bai idatzizko eta bai ahozko euskal komunikabidetan jardun da. Haurrentzako eta helduentzako hamarnaka literatura lan ekarri du euskarara; besteak beste, Walter Benjamin, Anaïs Nin eta Amélie Nothomben obra bana. Gu orduko hauek, Txalaparta, 2017, helduentzako ipuin liburua eta Bidean haurrentzako, Denonartean-Cenlit, 2018, albuma idatzi ditu. Gaur egun Txalaparta argitaletxeko editorea da.

Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970) Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen 2009an Bilbao-New York-Bilbao (Elkar, 2008, Seix Barral, 2010) lehen eleberri transgresorearekin. Aurretik, Bitartean heldu eskutik (Susa, 2001) poema-liburua argitaratua zuen. Lehenengo eleberri horren ondoren, Mussche (Susa, 2013) eta Elkarrekin esnatzeko ordua (Susa, 2016,

euskarazko Kritikaren Sari Nazionala eta Euskal Irakurleen 111 Akademiaren saria) etorri ziren. Azken lan hau Asier Altuna zuzendariak eramango du zinemara laster. 2018an, New Yorkeko Liburutegi Publikoaren Cullman beka ospetsua eskuratu zuen bere laugarren eleberria, Izurdeen aurreko bizitza, bertan idazteko. Bere testuak duela gutxi agertu dira The New Yorker, The Paris Review eta beste argitalpen batzuetan. Podcast bat idazten du astero euskaraz Berria egunkariarentzat. Gaur egun, Kirmen Uribe New Yorken bizi da eta idazketa sortzaileko eskolak ematen ditu New Yorkeko Unibertsitatean (NYU).

Sara Mesak (Madrid, 1976) sei eleberri eta hiru ipuin-liburu idatzi ditu. Lanen artean, hauek nabarmentzen dira: Cuatro por cuatro (Anagrama, 2012, Herralde sarian finalista); Cicatriz (Anagrama, 2015, RNEren Ojo Crítico saria); Cara de pan (Anagrama, 2018); eta Un amor (Anagrama, 2020, 2020ko liburua, El País, El Cultural eta La Vanguardia egunkarien ustez, eta Los Libreros Recomendán-en saria, fikzioa), Mala letra (Anagrama, 2016); Silencio administrativo: la pobreza ante el laberinto burocrático (Anagrama, 2019); Perrita Country (Páginas de Espuma, 2021), Pablo Amargok irudiztatua. Bere lana hamar bat hizkuntzatarara itzuli da.

Afrika Bibang (Algorta, 1975) soul abeslaria da euskaraz. Bilboko Ke No Falte reggae bandarekin hasi zuen musika-ibilbidea, eta 8 urtez ETSIAK punk/rock taldeko kidea izan zen. 2004an bakarkako lehen diskoa argitaratu zuen, ENTZUN izenekoa (Metak), eta 2005ean KORRIKAREN kanta konposatu zuen. 2008an Bartzelonara joan zen, eta, han, flamenko fusioko CALIMA bandarekin kantatzen hasi zen. Ojos de Brujo taldearen sortzaile Juanlu Artiachek eratu zuen Calima, eta Grammy latino baterako izendatu zuten. 2012an, Calimako beste bi kiderekin batera, "THE JOHNNY FREELANCE EXPERIENCE" sortu zuten, elektronika, soul eta danceko hirukotea. Eivissako aukerako klubetan jo, eta hainbat bira egin zuten Japonia, Polonia, Cannes, Paris, Londres, Beirut, Mexiko, Txina, Thailandia eta New Yorken jardunez. 2019an bakarkako ibilbideari ekin zion, Begira (Airaka) diskoarekin, eta kontzertuen bira bati ekin zion, euskaraz egindako soul kantariaren irudia berrabiarazteko. 2021ean bere azken Ep-a kaleratu zuen, "Ispiluaren Aurrean" (Huracan29 Records).

Oscar Gomez Mata (Donostia, 1963) Genevan (Suitzan) bizi eta lan egiten du. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Legaleón-T konpainia sortu zuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin zituen harekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako frantseseko antzerki-eskolan. (HETSR) Suitzako antzerki-sari

nazionala 2018an. 2019tik 2021era arte artista AZkidea izan da, eta Esperanza Lópezekin batera garatu ditu, *Catálogo de derivas* eta *Makers*, bere azken pieza eszenikoa, Juan Lloriente aktorearekin lankidetzan.

SARREREN SALMENTA



Jaialdirako sarrerak otsailak 23 aurrera eros daiteke AZ Info-n eta gutunzuria.azkunazentroa.eus webgunean.

Elkarrizketak Auditorioan: 3€ / 2€ AZ txartelarekin

Afrika Bibang: 10€ / 8€ AZ txartelarekin

PREZIO BEREZIAK: webgunean kontsultatu

SARREREN SALMENTA: gutunzuria.azkunazentroa.eus | Az Info: otsailaren 23tik martxoaren 27ra | LiburudendAZ: martxoaren 28tik apirilaren 2ra

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Gutun Zuria Bilbaok webgune berezi bat du edizio honetan (gutunzuria.azkunazentroa.eus), non Jaialdiaren buruzko informazio guztia, **eguneko programazioa**, parte-hartzaileen **biografia** eta **jardueren egutegia** ikusgai dagoen. Horrez gain, webgune honetan **espazio bat erreserbatu ahal izango da Az Espazioaren esparruan proiektuak aurkezteko, ikus-entzunezko kapsuletan** jasotako testigantzak jasotzeko edo **streaming** bidez jarraitzeko aste horretan egiten diren zuzenekoak.

Bestalde, Gutun Zuriak Azkuna Zentroaren **sare sozialetako** kontuak erabiltzen ditu **#GutunZuria2022 #GutunZuriaBilbao** hashtagekin:

<https://www.facebook.com/AzkunaZentroa>

<https://twitter.com/AzkunaZentroa>

<https://www.instagram.com/azkunazentroa/>

Gutun Zuria Bilbaok Instagram TV (IGTV) kanal bat ere izango du edizio honetan.

GUTUN ZURIA BILBAO - KONTAKTUA



prensa@azkunazentroa.eus / Tel: 628 272304 / 946 124 315 / azkunazentroa.eus

PARTNERRAK

Fundación BBK / Instituto Etxepare

